



"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA


Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Laugarren urtea. - Pamplona. - Enero 1969. - Ilbeltza (Urtarrilla). - Iruña. 35 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

L A R R E K O



Urte berriak izen aundi bat dakarkigu haste hastetik gogora: D. Fermin Irigaray, Naparro'ko sendagile aparta izandakoa. Orain-tsu, ilbeltzaren 25'ean beteko zituen Jainkoak bereganatu ez balu, ehun urte. Goyan bego.

Gizona joanik ere bere nortasunaren itzala ez da joana; errango nuke iraupen osoko zorian dugula sartua. Entzun nahi nituzke lerro aukerik gure paserritako sukaldetan aterako diren gauzak! Oso ezagutua bai zen eta zailago dena, maitatua.

SENDAGILEA

Madril'go Ikastetxe Nagusian egin zituen ikasketak. Bera Bidasoa'koan eta Iruite'n egon ondoan, Iruñe'ra etorri zen ospitale'ko zuzendari. Gain gaineke mailara heldu, eta bera zuten gure Jendeak ebaikuntza (operazio) aunditako sendagile nagusia. Aita edo ama joan ez zitzaion etxean ba zuten adiskide edo ezagunen bat arek sendatua. Ez da herririk Naparro'ko eskualdunen artean D. Ferminen aipamena egingo etzenik.

Orrekin ez dut esan nahi aipamen hori gure artean bakarrik zuenik; Erriberan guk ainbat ezagutzen zuten, noski. Eta Naparro'tik kanpo, Prointzi aldean ere bai. Alare, gehienik ezagutzen dutenez mintzo naiz ni.

IDAZLEA

Eta bere lan guzien artean idazle, gañera. Izenarekin zuten nabillen eztaikit. J. San Martin adiskideak «**Escritores eusquéricos**» delako liburu poxpolin berrian, «Pablo Fermin Irigaray Goizueta» izen errezkada osoa ematen dio. Bataioko paperretan zitaken hori. Baserritarrei D. Fermin Irigaray entzun izan diet beti, eta ni ez naiz aiendako baizik idazten ari. Alare, errexago zaigu «Larreko» erraitea, gure idazleak beretako hartu izena bai da.

Abenduaren lauan Euskaltzaindiak Iruñe'n ukana du bere ila-beteroko batzarra. Zer edo zer aipatu zen an. Omenaldi bat zor diogu. Nik jakin nahi nuke orai: 1) asko idatzi zuen. 2.) Nun arkitu laizken bere lanak, eta 3.) Nork bildu lezazken.

Orduko aldizkari «Napartarra», «Gure Herria», «Euskal Egnalea», eta egunkariak bildumak ba ditazke nunbait. Begiratu baten egitea balio luke. Ez litzake lanik txarrena oien biltzea izango.

ESKUALDUNA

Batez ere, hori: eskualdun jatorra. Ba dira gure artean ots eta zalapartaka hume erdaldunak dakarzkiten aita eskualdunak. D. Fermin etzen eskualtzale idorra atera. Iruñen bizi eta izen aundikoa izanagatik, hume eskualdun eta eskualtzaleak eman zizkion Eskualerri maiteari. Ba ginuke nun ikasi. Begiramendurik aundienarekin kendu dezagun eskualdunok bere aurrean txapela.

S.

ILARGIKO BIDEA

Aurtengo eguberriak ilargira begira egin ditu munduak. Hemendik aurrera ba du gizonak bide berri bat: ilargirako bidea. Borman, Lovell eta Anders izan dira izartegiko Colon eta Magallanes berriak. Eskolako liburutako iru izen. Denbora luzean agotan ibiliko dira aurtengo eguberriak.

Gure zaharrek esaten zuten ota soina an ote da? Baño, esatera horrek ba du bere soka luzea. Otea bildu ta soina bizkarrean omen zetorren gizon bat etxera. Ilundu ta biderik ikusten ez. Ilargia otoiztu omen zuen «atera adi bidera», esanaz. Bai atera ere ilargia. Ederki baliatu eta etxera sartu zanean, zanpez atea etxi omen zuen. «Orai joan adi txakurraren ipurdira», izan omen ziren bere itzak.


Ilargiak gaizki hartu ta idekirik zegon atal-leio txikitik sartuz, gizona bere ota soina-kin ilargira ereman omen zuen. Geroztik, aldian behin, ota soinaren itzala bi adarren erdian ikusten zela zioten.

Aurtengo ilargi hori menderatu du gizonak. Amar inguruko lokarria eman dio buruan. Beste aldian, arranoak mendian bezalaxe jeitxiko zaizkio gizonak. Hemendik aurrera ez dute iñungo haurrak ilargi motzaren sorginkeritan sinetsiko.

Ilargiak ba zituen bere itzalak. Gizonarendako aundiena, iñoz erakusten etzigun beste aurpegia. Orai ba dakigu haren berri ere. Amar aldiz begiratu diote iru gizonak eta ez da lotsaz gorritu. Hala ikusiko ba genitu guk geuron itzalak!

Txapelketa bat bezala hartu dute batzuk bestek izarrak eskuratze hau. Nor gehiagoka dabilta Errusia eta Ipar-Amerika. Ez dira konturatzen gastu erdiarekin egin laikela hori biak elgarretaratuz. Alderdi baten diru-aldea nahiko litzake munduko gosea ixiltzeko. Bitartean, munduko iru gizonetatik bi jatekorik gabe.

Jakintza ez da behar bezala banatua. Batzuk asko eta beste askok ezer ez. Ilargi hortan jendeak bizi izan balira zer



esango zuten gure gauzak ikusi ta?

Makurrena da txakurra eta katua bezala gabiltzala elkarren artean. Gerra ta zikinkeria, beti burrukan otsoak bezala. Etzen hobe izango besteren etxeko kontutan sartu baño lehen lurreko naspillak zuzentzea? Anai arteko giro jator bat sortzea?

Iru gizon hoiek ereman dituzten tresnak ere ez dira oso egokiak. Nasketa gehiegi ba dute Saturno eta Apolo aundi hoiek, beren pizte, erditze eta su garrekin. Arinago den zerbait asmatu beharko dute ota soina utzi ta gorago igotzekotan. Arrisku gehiegiko jokuak dira.

Ongi atera eta ongi konda. Baño hauek dira, illargiak bezalaxe, gizonaren gaurko jokabideak dituen itzalak. Batzun eta besten fantesi utsa.

SAGI



Yo acuso... tú acusas

Hemos dicho en más de una ocasión, que llegará el día en que los hijos —nuestros hijos— acusen a sus padres de desidia, si no de traición. Estoy por decir que ha llegado ese momento; o está en puertas, y flotan ya en el ambiente juvenil los primeros reproches de velada acusación. Podría aportar datos muy significativos, pero prefiero ceñirme al contenido de una carta que me llega de Barcelona. Dice así:

«No tengo el gusto de conocerle personalmente, pero sí por refe-

rencias. Creo que Vd. tampoco me conoce, pero podrá conocerme un poquito sí, a mi vez, le doy algunas referencias. Soy de Alsasua, donde de siempre reside mi familia...».

Viene a continuación una serie de datos entrañables para quien esto transcribe, y luego añade:

«Estoy en Barcelona estudiando la carrera de Ingeniero Industrial. Estando un día en la escuela...» —y relata el encuentro casual con otro compañero de Facultad, que resultó ser paisano suyo. Hablaron del Euskera «nuestro viejo y queri-

do idioma, del que todos los vascos —son palabras suyas— podemos sentirnos legítimamente orgullosos».

Pero surge la íntima tragedia personal: vasco él, de Alsasua y no habla el Euskera. Y acusa. Con delicadeza, sí; pero sin concesiones:

«...es una lástima que la generación que nos precede haya descuidado la enseñanza del idioma vernáculo, error que pagamos bastantes de los que militamos en la presente. Ahora, el tiempo perdido por nuestros padres hemos de recuperarlo los hijos.

Para mí es una pena que hablando euskera mi familia, mis hermanos y yo lo desconozcamos casi por completo. Hasta me da vergüenza confesarlo. He decidido que esto, por mi parte, se acabó. Ahora que comienza un nuevo curso, he decidido hacer del Euskera, no una asignatura más; sino la más querida de todas. Claro que, aquí, en Barcelona...

He llegado al motivo que me ha impulsado a escribirle. Como para empezar a estudiarlo, además de ganas, se necesita material, que es casi imposible de encontrar en Barcelona, le ruego me conteste indicándome qué textos me aconseja para empezar a estudiar y dónde puedo adquirirlos. Me interesa una gramática que no me haga perder el tiempo, o sea que sea bastante rápida y profunda, pues no me sobra demasiado tiempo (trabajo y estudio) y ya soy hombre acostumbrado al estudio. Deseo una gramática de un nivel bastante elevado. También un diccionario que sea bueno y completo y además textos en vasco donde poder practicar... Huelgan los comentarios. La pena es que el nivel cultural de nuestro pueblo esté lejos todavía de la altura media deseable. Si su pueblo natal hubiera contado con espíritus abiertos como el suyo, y con un poco más de voluntad no hubieran flaqueado las buenas iniciativas de manera tan estrepitosa...

Entre tanto queda en pie la acusación. No es precisamente cómodo tratar de subsanar un error anterior, tal como lo plantea este universitario. Quien tenga oídos...

J. M. SATRUSTEGUI

ESKVALERRIKO LEIOA

JACINTO ARGAYA GOIKOETXEA DONOSTI'KO APEZPIKUA

Bidaso'ko Beran sortua den Jacinto Argaya Goikoetxea Mondoñedo'ko Apezpikua izendatu dute Donosti'ko Apezpikua. Egia esan errotik poztu gaitu berri honek. Argaya Apezpiku Jauna Iruñe'ko Seminarioan egin zitun bere apez-ikaskintzak, Iruñeko Xabierreko Prantzisko Sainduaren Elizako Erretorea izan zan baita ere Seminarioko Erretor Nagusia. Iruñe'tik Valencia'ra joan behar izan zuen ango Artxapezpikuaren ondoko Apezpikua izendaturik. Valencia'tik Mondoñedo'ra juan zan ango Apezpikuntzarako eta orain Donostira.

Argaya Apezpiku jauna euskalduna da sortzez, eta Gipuzkoak badu berri ere euskal errialde bateri dagokiona: Euskaldun Apezpiku bat izatea. Zorionak Gipuzkoari eta Argaya jaunari, biotzez.

BAZTAN'GO AIUNTAMENDUA EUSKAL DANTZA ETA TXISTUAREN ALDE

Arizkun'go «ELKARTASUNA» deitzen den Errebistan leitu dugunez Baztan'go Ayuntamenduak Euskal dantzak eta Txistuz jotzen erakusteko klaseak prestatuko ditu. Klase hauen zuzendari eta erakuslea Arizkun'go Maurizio Elizalde txistulari famatua izango da. Zorionean daude baztandarrek. Denei, Baztan'go Alkate jaunari, kontzejale guzietan eta gure gauzak maite dituztenei, zorionak!

BILBO'KO APEZPIKUA ILLA

Yoan berri den Azaroko 11 egunean Bilbon beste apezpiku euskalduna il zitzaigun: Nafarro'ko Otsagiko (Otxagabia) semea zen Pablo Gulpide Beope jauna.

Sortzez euskalduna zen hau ere, Saraitzuko (Salazar) Ballearen Otsagin ikasia. Auniz urtez Iruñean bizi izan zen Bikario Generalaren tokiraño iritxi arte. Iruñe'tik Sigüenza'ko Apezpikua izendatu zuten, eta andik Bilbora juan zen Bizkai'ko Apezpikua izateko.

Esteetako minbizia jota orain bost urte baditu operatu behar izan ziotela eta irurogei t'amar urte zituelarik il zan.

GOYAN BEGO Pablo Gulpide Beope Apezpiku jaun Agurgarria.

«EUSKAL ASTEA» EIBARREN

Oztopo eta eziñak garaiturik Eibarreko «Arrate» Elkarteak Abenduko lehenengo astean lau egunez, astelena, astearte, asteazken eta ostira-lean, lau itzaldi edo mintzaldiak antolatuko zituen. Ona emen xehetasunak:

Juan Mari Torrealday jauna «Euskera idatziaren batasunari buruz» mintzatu zan. Gai onek errotik dauka gaurbotasuna, eta Euskaltzaindiak ontantxe lan egiten du gaurko egunetan.

Rikardo Arregi jaunak «Euskal Idazleen eragozpenak» gala arturik itz egin zuen.

Andoni Lekuona jauna «Euskera ta Herri Nagusiak» gaiari buruz aritu zan.

Azkenean Yon San Martin jaunak «Euskal Poesiaz» gaiari buruz mintzatu egin zuen.

Eibarreko erria, nere ustez, Euskalerriko erririk langilleena da, baita ere alaienetatik bat. Han ezdago tokirik gizon alperrentzako ezta ere gizon tristeentzako. Baño Eibarreko erriak, ere badaki bere euskalduntasunari begiratzen batzuek edo besteek diote diotela. «Euskal Astea»k exitu aundia izan du. Gure goresmenak «Arrate» Elkartasunaren antolatzailei.

«ZORTZIKOTE»N TXAPELKETA BILBON

«Otxote», edo «Zortzikote» esaten diogu euskeraz «zortzi kantari multzo bateri».

Yoan berri diren Abenduko 15, 22 eta 29 egunetan Bilbon Euskalerriko «Zortzikote» Norgeiagoketa bat egin da. Saiok Bilboko «Buenos Aires» Teatroan izan dira. Euskalerriko lau lurraldeetatik joanak izan dira Bilbora la zein gertatzen zen irabazle.

Hona emen Kantari multzoen izenak eta nungoak etorriak:
Nafarrokoak: Zankozako «NORA» otxotea, eta Olite'ko «ERRI BERRIA».

Gipuzkoakoak: Tolosa'ko «LEIDOR», Erreterria'ko «KARNABA», Donosti'ko «EUSKAL BILLERA», Añorga'ko «ERTZIA», eta Azkoiti'ko «SANTA CECILIA».

Bizkaikoak: Portugalete'ko «DANOK BAT», eta Durango'ko «ASTARLOA».

Arabakoak: Llodio'ko «LA MILAGROSA» eta «ARETA».

Iru saio egin ondorean Maiburukoek erabaki hau artu zuten: Lenengoa, eta Euskalerriko Txapelketa: Portugalete'ko «DANOK BAT» Zortzikotea, amabost puntuekin bildurik.

Bigarrena: Añorga'ko «ERTZIA» izenekoa, 14'25 puntukin. Eta irugarren eta laugarrena: Tolosa'ko «LEIDOR», eta OLITE'ko «ERRI BERRI» zortzikoteak.

Saiok exitu aundiekin egin ziran eta Teatro iru egunetan beteta zagon.

BERTSOLARI BIKOTEEN SAIOKETAK NAPARROAN

Yoan berri diren Abenduko 8, eta 15 egunetan eta Urtarrillaren lehenengo egunean, hau da Urte Berri egunean, Bidasoko Beran, Elizondo, eta Lesakan (ordena hontan) iru Bertsolari Bikoteen Saioketak egin dira.

Bere izenak esaten duen bezala, Saioketa hauek ezdira Bertsolari Bakarkoaren ariketak dira, bina-binaka baizik, honengatik parejaz edo bikotez aritu ziran eta biek bildutako puntuek balio zituente azkenean.

Parte artu izan zuten bertsolariak hauek ziren: Nafarroatik Lasarte eta Arozamena bikotea. Gipuzkoatik Uztapide eta Lazkao Txiki. bikotea Bizkaitik Azpillaga eta Lopategi bikotea.

URTE BERRI ON IRAKURLE GUZIEI

Ezduz desio gabe sail hontan utzi nahi irakurle maite guzietan urte berri on bat izan dezatela eta baita ere gure euskera gaixok urte hortantxe berri pozgarriak ar ditzala.

IKUSLE



AITA IRAIZOZ EUSKALTZAIN BERRIA

Euskaltzaindiak, abenduaren 4-an Iruñean izen zuan billeran, Aita Polikarpo Iraizoz-koa euskaltzain izendatu zuen, Aita Iraizoz-ek, aurtien Seminario Rojas-ek bere heriotze ondorean Nafarroako euskaltzainen artean utzi zuen alki hutsa beteko du.

Aita Iraizoz, Agustin Zarranz bere bataio izenez, 1930-etik Euskaltzaindiko laguntzaile zen (lehen urgazle deritze zaien haietako). 1897-an Nafarroako Iraizoz-en sortua eta gaur Erroman Aita Kaputxinoan ordenako Sekretaritzara Generala darama. Euskal literaturan oso ezaguna bere «Urtsuya» eta «Irisarri» izenordez. 1922-23 urteetan Zurich (Suizan) jardun zan linguistika ikastaroak egiten Euskaltzaindiaren laguntzarekin. Euskerazko aldizkari askotan idatzi du, batez ere lehen parteko «Zeruko Argia»-n, «Euzko-kokoa», «Euskera» eta «Olerki»-n. Nafar euskalkien aditzen estudio sakonak eman zituen «Euskera»-n. Yesu Kristo gure Yaunaren bizia (Iruña, 1934) liburua ere egilea da, eta «Euzkogo»-n argitaratzen zituen olerkiak, amalaukoetan (sonetoetan), aipagarriak dira euskal literaturan.

Gure zorionik kartsuenak Aita Polikarpo Iraizoz-koari.



Lukasen Urtebetetzea

Ilbeltzaren emeretzian laurogei ta zortzi urte betetzen ditu Lukasek. 1881'garren urteko lenbiziko haurra izan zen Urdiain'en. Hori dela ta bere etxean ikusten izan nitzai. Ilunabarra. Otz zen kanpoan. Su eder baten argitan, geldia geldia garrari begira zegoen gure gizona.

—Eztaitut senditu!! Gure kontuak hola dira: batzutan norbaiten otsa iduri; atera ta... oiloak. Beste batzutan berriz jendea ataria joka eta nik ezer aditzen ez. Zer nauzu! Urteak.

—Ainbeste urterendako, ondo zau-de!

—Orai baño gaizkiago ere ibili naiz. Ezin da fiatu, e! Egun bat ona ta bi txarrak, hola da gure kontua...

San Sebastian egunean hartu zituen bataio urak. Garai hartan, biramonean bataiatzen zituzten haurrak. Egun seinalatua dela esan diot, eta berak orduan:

—Bai; urteko festarik aundiena izaten zan. Orai galdu da. Herriko haur guziak, arroparik oberenekin ateratzen zituzten prozesioan. Peste edo halako zerbaiten kontrako indarra zuela esaten zuten. Sebastian izeneko lau gizonen erematen zuten santua. Berak trebe ez ba ziran semeren bati eremanazten zioten ebein partez.

—Beste oitura zaharrik izaten zen egun hortan?

—Arrosarioko denboran idiak askatzen zituzten etxetan. Herri guzian barna ibiltzen ziran, batean sal-

to bestean adalkan, elgarrekin burrukan. Gero kendu zan hori; agindu zuten ez ganadurik ateratzeko; eta askoz hobe. Hura etzen modua.

—«Veinte de enero, San Sebastián Guerrero», esaten zan Urdiain'en. Eta hori zerengatik? (malezi gabeko barre bat egin du, eta gero):

—Ardua ematen zuten auzoan. Denbora aietan, ba dakizu, ardo ba zen; ona eta merke. Baño dirurik ez. Jende guzia auzora inguratzen zan holakotan eta batzutan gexegi edan ere bai. Etxeratu baño len okasioa seguro. Gero... San Sebastián guerrero!!

—Bataio paperak dionez Pedro José Zufiurre izan beharra zen zure aita ordeko. Kanpoan izanki bere seme Lukas'ek jaso zintuen. Ba zina-kien horren berri?

—Pedro Esteban ez baina, Pedro José zaizkion eta nere aitaren anaia zan. Lukas, ni jaso ninduen, haren iloba. Emakumea izango zan berriakin joan zitzaiona: «Pedro Jose; fede santuaren amenturako iloba bat gehio ba duzu». (Famelian bostgarrena) Eta berak erantzun: «Horren espera ago? Horrek emango din jatera...».

Amerikanoa, diruduna; ta gu pobriak. Hortako ez ninduen jaso. Eta bera ere pobre hil zan azkenean... Lukas Txiki askotan esaten zidan: «gure rebeldiak nahi ez ta ereman niken nik pontera...».

—Zure ama-ponteko berriz Maria Brjida Zubiria izan behar zuen eta



bataio agiriak dionez gaixo zegoen. Bere orde zela batek jaso zintuen.

—Bai; Maria Josefa Guridi'k. Gure ahaideak ziren. Jaikiak egiten zituzte. Behin batez ongari jaiki aundi bat agindu zieten Altsasan. Su ondoan jarri ta egin zuten saski hori; ederra egin ere! Andik ateratzen asi gero ta, ezin atera. Ez hartzen atariak. Berriz askatu, ezkatze-ereman eta antxe bigarren aldian egin behar izan zuten jaikiak. Guridi'tarrak, Vitoria ezkondu zan alaba eta harekin joan ziran, denak.

Lukasen burua putzu bat da. Liburu aundi batek baño gehiago ba daki. Berarekin egonean beti zerbait ikasten da. Oraikoa bataio paper zaharrak leitzen ikasi dut. Han ez da ainbeste gauza esaten. Gizon bakoitza mundu bat da; eta Lukasen mundu hori eskutan daukagu. Luzaz utzi dezaigula Jaikoak.

Zorionak laurogeita zortzi urte betetzeari!

J. M. S.



NEGUAKIN

Negu otza,
egun labur:
suan egur,
gau zorrotza:
ordu beltzak;
ezin piltuz,
ezin gartuz
su-iketzak.

Aizeakin,
eskuetan
ta ofietan
gu miñakin:
sudurrean
otz eta otz;
estul-abots
bularrean.

Beatzetan
min delako,
kasketako
ezin eman
pilotari
saietsetan:
kaliketan
ezin ari!

Uzkur bear;
daldaraka,
kazkaraka,
mendi-zear:
txori gaixo!
gose zaude!
danok gaude
ixil: ixo!

Elurrakin
zamatuak,
makurtuak
pisuakin,
amon xarrak
antzo dira
bai, begira,
or, belarrak!

Bideetan
zoaz goiti,
geldi, ezti,
nekeetan:
iausteetan
irrist nabil,
ezin ibil
lausoetan.

Orma gogor;
bere eztena
zorrotz dena;
kerren sarkor!
erorikan,
irristadak;
etzankadak
biribilkan.

Etxetxoan,
zein egoki!
zein goxoki
su-ondoan!
launarekin
otoitzean
ta pozean
lanarekin.

Zugaitzetan
ostorik ez;
baña zañez
indarretan:
landa-belai
in-antzean;
ernatzean,
onaren zai.

Ikas bear
au guk ere:
ez beinere
zentzuz mehar!
eskuakin
lana noiz as,
buruz ikas
neguakin!

Udarako
sendotasun;
argitasun
lanerako;
neguakin
bil ditzagun,
bear dugun
indarrakin!

Negutea
ez da alferra:
da fierra;
moldatzea.
Ixilean
ikas zagun,
launa lagun,
guk lanean.

IBARRONDO

UR GOIENA, UR BARRENA

Arantzazu, zer dekazu?
Ur goiena, ur barrena.

Ur goiena, ur barrena
Urteberri egun ona.

Etxe onetan sar dayena
Bakearekin osasuna;

Bakearekin osasuna
Onarekin ondasuna.

Etxeko-andra giltzaria
Iriki zazu ataria;

Iriki zazu ataria
Ba dekagu ur berria;

Ba dekagu ur berria
Presta zazu gosaria.

Etxe ontan oilar bi
Bat bestea iduri;
Etxe ontako etxeko-andreak
Ama Birjina dirudi

Etxe ontako nagusi jaunak
Poltxia txintxirrin-duna;

Poltxia txintxirrin-duna
Zilar ezpata duna

Etxe ontako nagusi jaunak
Urre gorritzko bizarra,
Arxek, arxek eman dia neuri
Errieltxo biko zidarra.

Goien goien ilargia
Erdi erdian klabeiña;
Gure baratzan dago belar ona
Ark botatzen du usai ona.

Izotzetan, elurretan
Abenduko gau luzetan;
Beste guziak oian eta
gu gaixuok oin utsetan

Eguzu, bada, eguzu
Baldin eman nai ba dezu;

Baldin emen nai ba dezu
Bestela despedi gaitzazu.

(Orain, urteberri asierako ura
(Ur-berria) ematen diote nagusiari)
Etxeko jaunak opil bat ematen
zien. Beste batzuk beste zerbait.
Ezer gabe baltzen ba zituzten, au
kantatzen zan:



BERTSO BERRIAK

Saldisko Erretore den Tomas Otsandorena jaunari

(Zurgingeneko Mikelak jarriak)



Don Tomas Otsandorena Saldisko
Erretorea. Zorionak, bere ogei urte
betetzean apez egiñik, biotzez!

«Ogei urte Saldisko erriarendako. Gu Zeru bidean zuzentzeko. Orregatik, ona bi bertso Artzai-Deian azaltzeko. Saldisen jaio ta azi bazera, pozik dituzu abestuko.

— 3 —

Danok gaitu ogei Jainkoak
Bere irudi ta antzeko;
Artalde batean bildu eta
Zeruetan gozatzeko.
Orregatik digu Jaunak eman
Artzai bat gu emen zaitzeko;
Bere agindu ta konsejuak
errespetuz betetzeko.

— 4 —

Ogei urte gure errian,
Jainkoaren seme leial;
Artaldea zintzo zaitu eta
Jainkoari aintza eman.
Txiki-aundi, zar eta gazte
gaude bere bearrean,
Jainkoaren itza entzun eta
artzeko biotzean.

— 5 —

Gau eta egunez daukagu
gu danon serbitzurako;
ordu larrian gertatu eta
ateak ireketzeko.
Txiki-txikitik ditugu bear
Jainkoaren seme egiteko
apez on baten esku biguñak,
Sakramentuak emateko.

— 6 —

Asko gera bere artaldeko,
txarkeri edo onerako;
oben bat bakarra egin da ere
danontzat da kalterako.
Bakoitzak zuzen zaitu dezagun
anima Jesusendako;
Pekatuaren kutsurik gabe,
Zeruan zuzen sartzeko.


— 7 —

Eskerrak ematen dizkiogu,
nola zar berdiñ gazteak;
bere lan eta amets guziak

gutzaz dauzka eskeñiak.
Biotz osoz opa dizkiogu
osasuna ta graziak;
Jesus onak bedeinka ditzala
bere asmo on guziak.

— 8 —

Urte askoz iraun dezala
gure erria zainduaz,
zorioneko atsedean leku
danontzako biurtuaz.
Bedeinka gaitzala bertatik
bereak geran guztiak;
Munduko txoko guzietatik,
begira gaude jarriak.



Zorionak Urte Berri egunean

Euskeraz ainbat irakurlea
argi ta on diranari,
opa diotet biotz-biotzez
zoriontsu dan Urte-Berri.

—●—

¿Zer du gordia aurtengo urtiak
bere barruan ongarriri?
¿Zeñek lezake argi ta garbi
aintziñetikan igerriri?

—●—

Edozer dala... beste urte bat
daukagu guk eskuetan.
Artu ditzagun asmo onenak
sendo gure buruetan.

—●—

Zer dan onena, aren atzetik

guazemak danok laxterka,
anai bezela gogoz elkarri
emanaz laztan, besarka.

—●—

(kusi zagun gure inguruan
zabal degun lantegiya.
Bakoitzak bere dagon lekutik
egiñ dezala alegiña.

—●—

Elkartu eta dago indarra,
ta emendik datoz frutuak.
Fritu ondua, berexi, ona,
ta ez zimel ta igartuak.

—●—

Banaka ibilli ta ezer ez dator;
indarra daude galduak.
Ez ditu artzaiak ikusi naiko
bere ardik, banatuak.

—●—

Danak bat egin ta jo dezagun
arretaz gure lanari.
eman dezagun aintza ta ondra
Euskal Erri maitiari.

—●—

Danak ditugu lantegi ontako
indar ona t'atsegiñak.
Danak dizkiugu oso atsegiñ
aurtengo Urte-Berriyak.

—●—

Atozte, Letra gizon zeatenak;
atozte, baserritarrak;
etorri bizkor, gelditu gabe
langillia kaletarrak.

—●—

Umek, zerate zati berexi
lantegi leku onetan.
Nik, beintzat, maite zaituzte asko
amorio katietan.

JOAQUIN ALDAVE

IKASI, MIKASI...

ERREUMA eta PATATA

- ¿Zer da ori, Juan Migel, maingi?
—Ezkerreko anka ao, geo ta motelao gelditzen ai zait. ¡Erreuma zikiñ onek akaatuko nau!
- ¿Urtien ajiak, Juan Miguel; urtien ajiak!
—Bai; oi esaten deete denak, urtin ajiak deela. Baño, ¿eskuñeko anka ao, ezkerrekoan adiñekoa ez da? Alaree...
- Ta, ¿ez duzu erremediorik arkitzen?
—Denak proatu thot, jaune; ta, denak alperrikan. Bakar bakarrik, pis-keat on egiten dit poltsan deamaten patata onek.
- Enun uste patatak ortarako balio zunik. ¿Jakín ditek nola presta-zen duzun: egosita, erreta edo prejituta?
—Eztu deusen bearrik; patata gordiñ bat, eta txurithu gabe, sartzen da poltsan eta, ¡kitho!
- ¡Jesus, Maria eta Jose! Sikisteñeri, edo sorginkeri bat besterik ez da ori.
—¿Sorginkeri?
—Ta, erlijioan kontrako pekatu aundia, gañera.
—¿Ze ithe ot nik erlijioan kontra, patata bat poltsan eamanda?
—Guk egiten dugu gezurrezko siñiste bateri, Jangoikogandik onbide duan bezala.
—Nik, bakarrik, al egite'ot anka gaixo onen osasuna.
—¿Zeren indarrarekin? Belarrak izango dire noski, erreuma sendatzeko indarra dutenak. Patata, ere, nolabait prestatuta, baditeke on egitea, baño, ¿poltsan eramanda bakarrik? Ez det uste, deus egingo dizunik. Kurutze bat, edo Medalla bat, Jainkoai, Ama Birjineri edo Santuon bateri osasuna eskatzeatik eramango baziñute, elitzeke siñistekeri izango, baño patata gordiñ bat eramateakin, Jainkoa ofenditzen duzu.
- ¿Zeengati?
—EZ BEREZ, TA EZ JAINKOGAN INDARRIK EZ DUEN GAUZE BATEGAN SIÑISTATZEN DUZULAKO.
—¡Askok deamate, baa...!
—Ba dakit, askok deamatela; askok, zaldiaren perra zar bat, atariaren atzin, edo gurditik zintzilika, jartzen duten bezala.
—Nik ez det ortaz siñestaten, baño ikusi izandu'et etxe batzutan; baita eskumuturretik zintzilika ere.
—Ta, ¿ez duzu aditu, amairugarren numeroa, suerte txarrekoa dela?
—Baitaree...
—¿Zer du, bada, amairugarren numeroak suerte txarrekoa izateko?
—¡Auskalo,
—Mundun diren txorakerion bat besterik ez da ori. Otel eta klinika batzuk ikusi izan ditut, amairugarren numeroa jartzen ez dutenak. Bein, nere adiskide ta mediku famatu bateri, galdetu nion: —«Zuk, ere, ¿siñista-zen dezu olako berrixukerietan?» «Ba dakizu zer erantzun zidan? —«Nik ez det siñisten amairugarren kuartoa txarra denik, berez ona izan eskero ta eguzki aldera ba'da, baño, ¡iñok ez baizun sartu nai, ta, amabiko numerotik amalaura igotu nuen, eta denak pozik...!».
- ¿Burne gorritzko ustaia eskumuturrean eamatea, ere, siñistekeri izain da?
—Baita, ere.
—Nee ustez, pekatua intenzio txarran eongo da, baño, burne gorritzko alambre lodi bat eskumuturrean deamatenak, ez deamate intenzio txarra-ekin...
- Kontun iduki, Juan Migel, gure erlijioa, EGIZKO ERLIJOA dela, ta, EZ BEREZ ETA EZ JAUNGOIKOGANDIK INDAR EZ DUEN GAUZE BAT EGI-TEA, EDO ERAMATEA, SIÑISTEKERI ETA PEKATU DELA...
—Beorrek, nonai siñistekeri ikusten dun eskeo, beste alde'at ein bear diot.
- Mintzo, nai dezun ainbeste.
—Bizpiru aldiz, sartu diute atariin azpitik papertxo bat, orazio txiki' atekin. Gutxi gora bera, ara zer zion papertxo orrek:
«JESUS, MUNDUEN SALBAZALLE ZERAN ORI: SALBA ZAZU GURE FAMILIA ETA MUNDU GUZIA. Orazio onek mundu guziaz buelta osoa eman bear dio. Orazio au errezatzen dunak eta amar igeiki (copia), beste amar etxetan bialtzen dithunak, suerte ona izain do; bestela, izugarritzko desgrazioan bat etorririko zaio...»
- ¿Ba dakizu ze izena duten papertxo oiek?
—Ez, jaune.
—«Kate-Otoitzak» (Cadena de Oraciones).
—¿Ze iinbeada papertxo oikin?
—Sutara bota. Papertxo oik, masonon batek asmatuak direla ustean nago, gure erlijio santua parragarritzeko. Federik ez dutenak, ¿ze esango dute, olako papertxoak ikustean? «¡Olako fundamentu gutxikoak izango dire erlijio katolikoan siñeskintza guztiak!».
- ¿Pekatu da, ere, kartak botatzen thuten axtiingana joatea?
—¡Ara, emen, munduan den txorakeri aundiena eta barratuena! Non-bait leitu nuen, Paris'en bakarrik, ba'direla OGEI MILLE aztí (adivinatoras de cartas), tontoen bizkarretik bizi direnak. Ameriketako zitudade batzuetan, anunzioak eta dena jartzen omen dituzte periodikuetan, mediku famatuek bezala.
—Diotenez, batzuk igarritzen omen dute, galdetzen zaiena.
—¿Zuk uste duzu?
—Ni enaiz eondu beñee, baño, ala diote...
—Egi balitz, igarritzeko almena dutela, gizagajoi txanponak kentzen ibilli bearrian, ¿eluteke erraxago beren bizimodua irabaziko, astean bein, amalau aziertorekin, «kiniela» betetzeakin?...
—Ordun, beorren ustez, ¿azti oik gezurtik besteik ez dee, ta, aienga-na juaten deenak, fundamentu gabeko gizonak eta emakumeak?
—Erantzungo dizut, gure athuna zarrak olako kasuetan esaten zuten esaera batekin: «¡Oi ta gaberdiko auntz aularen eztule...!»
—Ta, patata gordiñ bat, erreuma kentzeko, poltsan eamatea, ¿funda-mentu berdiñekoa izain da?
—Gutxiagokoa: ¡Antxumian eztule bezalakoa...!
—Ekuste'ot, ezin ditekela beorrek. ¡Artu beza pata au!
—¡Ekatzazu zure eskua, ere! Norbaitek idatzi zuen: «Gizona aundien aundiena da, Jainkoan aurrian belauneko jartzen danian». Sententzi oneri, nik gaineraziko nioke: «...eta, arrazoie ekusita, burua makurtzen duanian».

A. ASTIZ ARREGI.



Olentzero Iruñean

Berriz ere Gaboneko egunean minutu baterik ere atzeratu egin gabe gure OLENTZERO etorri zaigun al-dapa bera gure Euskalerriko mendi maiteetatik.

Gero eta jende geiago biltzen da Iruñean OLENTZERO'ri agur egiteko eta berari laguntzeko. Neska eta muttiko eunaka ateratzen dira euskal moduan bezitutuak OLENTZERO'ren ondoan joan eta dantza egiteko.

Badu festa honek euskal giroa alajaiña! eta gure Iruña zaharrean are geiago. Lesakatik etorri zen aurten

OLENTZERO, eta Iturendik «Tuntturrek» deitutakoak, hau da «Zanpantzar» egunetan Ituren eta Zubieta'ko errietan ateratzen diren mutillak.

Urteoro etor dedilla gure kaletara patxada ederreko OLENTZERO irudia bere txistu, pospoliñ eta dantzari guzietan. Eta urte askotan ager dedilla ere guretzat ain maitatu den Aita Olazarán Kaputxino Jauna bere txistu jotzen OLENTZERO ETA BELENGO JESUS AURRARI laguntza emateko.



RETEGI TA LAJOS PELOTARIAK

«Zeruko Argia» deitzen zaion euskal astekariaren Abenduko 22. gneko. numeroan «Baxarri»k eratu-tako bertso bat azaltzen da gure napar pelotari bizkor diren Inazio Retegi eta Julian Lajos'eri eskeindutakoa.

Inazio Eizmendi «Baxarri» den bertsolari iaio bezin euskal idazlari jatorrak ala dio: «Joan den Garagarrillaren 27 eguna ezker, Erretegi'k eta Lajos'ek zortzi partiduko jokatu dituzte bikotea (pareja) osaturik. Zortzi partiduko oietatik zazpi dituzte irabaziak».

Eta ondorean ona emen bertsoa. «Mallak igo dituzte iru-lau saltotan, aurra joaten dira plazako tantotan. Jende bizkorra dago Naparroa ortan, aizkoran bezin onak zaudate pelotan».

ONDARRABITIK (Fuenterrabía)

“Milla esker zuri, Gotzai jauna...”

Ilbeltzaren 4 an, larunbatarekin, etorri zitzaigun Ondarrabi'ra, Gipuzkora'ko Gotzai berri izendatu duten Vera'ko Argaya jauna.

Aratsaldeko seiretan etorri zan eta Erriko agintariak egin zioten ongiatorria. Ondoren, berak eman zuan Meza Nagusia erdaraz eta euskaraz.

Eliza jendez bete-betia zagon eta kartsuki abestu zituan erdaraz eta euskarazko abesti denak.

Gotzai jaunak egin zigun sermoi hunkigarria ere bi izkuntzetan egin zuan. Erdaraz lehenik eta gero luzexego euskaraz.

Ondarrabiari aspalditik lotua zagoala erran zigun. Bere aita, Vera'ra ezkondu aurretik, Ondarrabian bizi izandu zen.

Bere osaba bat, aita Vera, Amuteko Kaputxinoen konbentuan egon zan luzaro eta bertan il. Baita ere geroztik bere anai bat Konbentu ortan bertan zuzendari egona da.

Gaurko egunian, Ondarrabian dauka arreba bat eskola emaille. Eta Gotzai jauna bera ere, aurtzaroan, Ondarrabian egona da. Eta oraindik oroitzen zan Ondarrabi'ko erriak Guadalupe'ko Ama Birginiari abeztutzen dion Salbearen estrofa zonetzetaz. Salve ori berriro entzuteko gogua agertu zuan, eta baita ere erri guztiak, ao ba-

tez, gogotik abeztu Meza Saindua bukatu ondoren. Ez da beraz arritzeko, oroitzapen guzti oien ondotik, Gotzai bezela egin duan lenen-lenengo bixita Ondarrabiarentzat izatia. Eta beretzat eta berdin guretzat guztiz hunkigarria.

Bereziki guretzat hunkigarria: Ez bai geuden oituak Ondarrabi'ko Elizan euskera orrela entzuten...!

Ikusi izandu degu Eliz ortan —aspaldi— elizkizun bat, entzule gisa euskaldun uts ziran, adineko arrantzale eta baserritar zonetekin, eta dena... ¡erderaz!

Ziur giñan ientzule aietatik, iñork etzula deusik ulertzen.

Meza ondoren, Gotzai jaunak eskeini zigun errezturnari muñ eman genion, eta ematerakuan deneiri erratan zigun: «Milla esker... milla esker... milla esker». Orregatik, guk emendik erantzuten diogu: «ZURI, MILLA ESKER GOTZAI JAUNA, ZURI». Ordu da konturatzten asteko, euskara gibeleratzen den leguan... sinismena ere atzeraka juaten dela. Nun dago sinismena bizi eta sendoago, Naparroako erdal Erriberan... edo mendiarri josita dauden euskal errietan...?

¡ZURI MILLA ESKER, berriro, GOTZAI JAUNA...

MEZA ENTZULE BAT

ERRIZ - ERRI



BAZTAN

EUSKERA

Elizondo'ko «Escuela Laboral» delako etxean euskuarazko ikasketak ematen asi zaizkigu. Berri orrek emengo euskaltzaletzi aunitz poztu gaitu, gure erri erdaldundu onek bazuen ba da zerbaiten beharra.

Euskerazko ikasketa oiek Baztan'go Balleko Etxearen laguntza osoa dute eta gure aintzindariak artutako erabaki ori denek gorensten ahal dugu.

Juan Oñatibia yauna dugu erakasle eta bere lana guziz ederra da. Azaroaren 7'an eman zioten asiera ikaskaierri eta orain asteen bein eta ortzegunarekin izanen ditugu...

Aunitz gazte ikusten dugu eskolan eta badirudi eskuara ikasketak indar pixka bar artu duela. Badut uste Oñatibia yaunaren erintzak zitu onak emanen dituela.

Gauz guzietan bezala lanpide ortan ere zerbait ikasketotan lehenik zaletasuna behar, au gabe ez-paita deusere egiten ahal, bañan ori dutenek oinarri sendo batean finkaturik aunitz egin dezakete.


Ez al dute ba aunitzek inglesa ta frantsesa ikasten? Eta gure min-

tetik eta Elizondo sunbildarra ta Fagoaga erratzuarra bertetik. Lau pilotari gazte auen aitaldia ederra izan da eta nik uste, trinketeen maizago aritzen balirezke pilotari politak aterako lirezke, hor bada gaia eta aski ona gañera. Partida Agerrek eta Etxandi'k irabazi 35-25. Gero paletaz larruzko pilotarekin, Lazaro ta Burgete, Txatxin ta Sagastibetza'ren kontra. Iru elizondar eta elbetear bat. Partida au Lazarak eta Burgete'k airez aire irabazi zuten 40-25.

Arratsaldean Giltxaurdiko zelaietan futboleko partida, Iruñe'ko «Oberena» ekipa famatua, gure «Baztan» en kontra. Partida hunek errekiste aundia izan zuen, yende aunitz bildu zen eta borrokaldea ere aski ederra gertatu. Ekipa bakoitxak bidena gol sartu zituen eta ez ginuen izan ez irabaztale eta ez galtzalerik ere.

Futbolearen ere bertze gauz guzietan bezala arituz ikasten da eta Baztan alde huntatik ere futbolari onak aterako lirezke hortara saiatu ezkerok. Bi mutil elizondar baditugu España'ko ekipa famatuena, bat Zaldua aspaldi huntan «Barcelona» deitutako ekipan ari dena eta bertzea Amiano orai berriki «Español» deritzaion ekipara yona. Bi gazte hoiek gure herriaren izena leku onean ezarri dute eta berriz ere Elizondo aipatua izanen da.

ANZANARRI



Eskerretik asita: Fagoaga, Elizondo, Etxandi ta Agerre, lau pilotari gazteak.

tzaira zergatik ez? Zailtasun guziaz aisa menperatzen ahal litezke gure mintzaira maitatu ezgeroz, eta ori izanen litzake gauzik ederrera, gure gaztedia euskal zaletasun biziarekin ikustea.

Denak behar den bezelakoak izan baginezke, gure sorterrian eskuara izanen litzake nagusi eta euskal kultura ere bertze neurri batean egonen litzake.


Orain ikasketak aipatu ditugunean, Lamierrite'ko berriak ere agertu behar genduzke. Lehenago erran ginuen nola Urriko illabeteen asi beharrak zirela etxe ortan eskola ematen eta erran ginuen ere gauzak nola moldatu beharrak zituzten zehetasuna guziaz agerturik. Orain erran dezakegu lan oiek guzietan bide onetik doazila, Baztan'go Balleko aintzindarien laguntzarekin eta bertze jaun zenbaiten lan goresgarriak indarra emanik.

Lamierrite'ko Eskolan Baztan'go baserrietako 50 muttiko eta neskatiko biltzen dira eta badirudi Eskola orrek errekiste aundia duela. Badituzte erakasle euskaldunak aurrei ikaskai guziaz ongi adierazteko eta or daude ere apez baztandar zenbait dotriña erakusteko.

Gauzak ongi egin ezgeroz, denentzat mesedegarri!

KIROLAK BAZTAN'EN

«Club Deportivo Baztan» deitutako kirol batasunak gure zaindari Frantzisko Xabier Sainduaren ohotan, yoan den Abenduaren 3'an besta polit bat antolatu zuen. Meza Nagusi ondoren Antxitoneko trinketeen bi pilota partida yokatu zituzten. Lehenik esku-uska, Etxandi eta Agerre erratzuarra alde ba-



LEKUNBERRI

NAFARROAKO ONYO ZURIAK ITALIARA

Alde hontako nafarrek ezdakite, behar bada, Lekunberrin industri bakana sorturik dela. Zoin da, ordea? Lekunberrin inguruetako baso oihantetan ernetzen diren zizak, onyo zuria itali aldera igortea.

Lekunberrin bizi den asturiano batek izan du asmo argi hori. Pedro Caballin jauna ari da irabazpide hortan eta industri berria sortarazi du. Caballin jauna okina da, ohol tratuz ere ari dena. Ogi frantsesa egiten du Lekunberrin eta nolako ogia! Bilbon jan ahal ezin dutena, naski, ain bikaina baita.

Asturias'ko gizon hau aspaldi etorri zen Nafarroa, euskaldun den errialdera; hemen ezkondu zen giputz emazteki batekin, eta orain, euskaraz mintzatzen da, berbera ere. «Komertzioko Kamaran» emana du izena onyo saltzale bezala, ta eskualde hortan ezdugu bertzerik, atzerrietara ziza gauzarik igortzen duenik.

Italia'ra igortzen ditu, ta bereziki, Genova delako aldera.

Han, zizka-mizka bezala jaten dute, nahas-mahas gozoan, koliflore delakoaz («Pellaz» hemen esaten dugun bezala), piper ta onyo olioz beteak. Batez ere, Nafarroa'ko ta Gipuzkoako «onyo zuria» bialtzen du Bizkaian onduak deituak.

Duela zortzi urte asi zen lanbide hortaz eta geroztik, igorpenak aunditzenago ari da. Orain lau urte, 1964 urtean, 18.000 kilo eraman zituen Italia'ra.

Barranka eta Ultzamako ibarreko oihantetan bildu ohi dituzte onyo hoiek inguri haietako baserrietarrek eta Caballin jaunak erosi.

(«Banco de Vizcaya»-ren Euskal errebatistik artua)



SUNBILLA

FRONTOI BERRIA

Aspalditik ametsetan zebillen Sunbilla'ko yendea pelotako toki eder bat euki bearrez, ta zorionez noizpaitere eldu diote lanari. Etsen noski oraintzeko ametsa ta naia. Denbora aunitz da pausok eman zituztela zerbait kontsegitu bearrez, ta azkenean, konsegitu-ere.

Erdaraz, «poli-deportivo» errarten dioten frontoi estali oietatik izango omen da. Yoan zan urteko Sanfermin aurretik subastatu zan egin bearreko lana. Zazpi edo zortzi lanartun, kontratixta, ibilli ziran. Iruña'ko batek artu zuen.

Kostatzen den iru'tik bat, erriak bere gain du; beste bat Diputazioak eta uste dut gañerako «pelotako federazioak» egiten duela. Ba, Sunbilla'ko erri jatorrak, milla pertsona—or nunbait—artuko dituen pelotako toki ederra izango du.

Uste danez, aurtengo Sandiburtziotako (erriko jaietako) nai litzake iradeki, au da, inauguratu. Plazer ederra izango litzaguke erriko-jai oietan ikustea pelota partiduo eder batzuek ta neskatz apañi oiek dantzatan ta biribilketan, alai ta sasoi-tsu...

EZKONTZA

Ezkontzako Sakramentuaren bitartez batu dira Sunbilla'ko elizan, Pedro Irigoien Iroz, mutil gazte jatorra, Lusaidearra, Joxefina Jorajuria Arretxea, Sunbilla'ko «Ixtola» baserriko neskatz apañarekin.

Bertako Erretor dan Don Basilio Sarobe apez yaunak bedeinkatu zuen ezkontza. Itzalditxo baten bidez, goraiatu zizkieten senar-emaztien birtute ta bete-bearrak. Ezkonberrien bizi-tokia, Sunbillan izango da.

Zorionak, ta ekin bizi-modu berriari.

L. A.

L. B. A.



AIZKOLARIAK

Yoan den Azaroaren 24'ean, Leitza'ko errian Euskalerriko aizkolarien Txapelketa egin dute. Egun gogoangarria bai zinez, mundu bat yende bildu zen, an baziren Gipuzko aldetik eta Nafarroa'ko leku guzietatik etorriak denak euskaldun yendeak eta aizkora yokoa maite dutenak. Gañera Telebistaren bidez España guzian agertu da Leitza'ko ikuskizuna eta hori dela medio denek ikusi dute gure aizkolarien indarra eta kemena aipagarriak direla. Bortz aizkolari ziren probatu bearrak, iru napartar eta bi gipuzkoar. Emen bere izenak eta bertze gañerako xeetasunak:

ASTIBIA, Leitza. Urteak 25. Luzetasuna 1,82 m. Pixua 86 kilo. BEREKOETXEA, Gorritiara. Urteak 33. Luzetasuna 1,78 m. Pixua 87 kilo.

LATASA, Sunbildarra. Urteak 39. Luzetasuna 1,77 m. Pixua 82 kilo. ARRIYA, Azpeitiara. Urteak 23. Luzetasuna 1,88 m. Pixua 95 kilo. USATEGIETA, Oiarzuarra. Urteak 29. Luzetasuna 1,82 m. Pixua 88 kilo.

AIZKOLARI BAKOTXAREN EGIN BEARRA

Kana-erdi edo 54 ontzako 4 egur. 60 ontzako 4 agur. 72 ontzako 2 egur. 80 ontzako 2 egur.

Denetara amabi onbor. Txapelketa honen antolatzalea Leitza'ko papelera «Colowal» zen eta juezak edo gidariak Nafarroa'ko Federazioak.

Eguerdiko amabietan eta anjelus errezatuo ondoren, aizkora gudukaldari asiera eman zitzaion. Lendabiziko onborretik asita Berekoetxea gorritiarrak aintzinaldia artu zuen indar ikaragarria erakusten zuelarik. Bere gibeletik bertzeak ere etzauden lo eta urbil urbildik yarraikitzen zioten. Zazpi lenbiziko egurretan gorritiara beti denen aurrean, bañan zortzigarrenean Astibia'k berdindu eta onbor hori akitu orduko leitzarrak aintzinaldia artu. Denak gogor ari dira batetik bertzera diferentzi aundirik gabe. Astibia sasoin izigarrian dago eta xuxen xuxen doa garaipenaren billa, Berekoetxea aren atzetik urbil dabillega bainan leitzarrak ezta amor emanen eta denen aurrean amabigarren enborra ebakitzen du Euskalerriko aizkolarien Txapelgoa bereganaturik. Astibia ohore guzietan Txapeldun. Zorionak. Gorritiara leitzarraren ondok eta gero Arriya, Latasa eta Usategieta.

EMEN AIZKOLARIEK EGINDAKO MARKAK

Txapeldun. ASTIBIA ...	Amabi onborrak	48 m ta 36 s tan.	2085 aizkora kolpe
Bigarren. BEREKOETX.	" "	49 m ta 28 s tan.	2114 " "
Iruugarren. ARRIYA ...	" "	50 m ta 29 s tan.	2012 " "
Laugarren. LATASA ...	" "	50 m ta 55 s tan.	2115 " "
Bortzgarren. USATEGIE.	" "	52 m ta 55 s tan.	2432 " "

AIZKOLARIEK IRABAZITAKO SARIAK

Astibia. Txapeldun boneta, 50.000 pezeta eta «Colowal» eta Gobernadorearen «Kopak».

Berekoetxea'k. Boneta, 40.000 pezeta eta bertze bi «Kopa».

Arriya'k. 35.000 pezeta eta bi «Kopa».

Latasa'k. 30.000 pezeta eta bi «Kopa».

Usategieta'k 25.000 pezeta eta bertze bi «Kopa».

Gañera bortz aizkolariek aizkora eder bana erregalutaz artu zuten.

ANZANARRI

EUSKALERRIKO ZUTIKAKO ONBOR EBAKI TXAPELKETA


Pasatu berri den Abenduko azken igandean Donostiko Anoeta'ko frontoian Euskalerriko «zutikako onbor ebakiaren» Lenengo Txapelketa ospatu zan.

Jendez erdi betetako Frontoian Euskalerriko bost aizkolaririk onenak agertu ziren bere lanari aurregi emateko, eta hauek Leitza Azaroaren 24 egunean azaldu ziren berberak ziran: Astibia, Arriya, Usategieta, Latasa eta Berekoetxea.

Lana hau izan zan: lau onbor 54 ontzako eta iru 45 ontzako, baño onbor bakoitzari aizkolaria bi ebaki eman behar izan zitien, guzira bada 14 onbor bezelako lana izan zituzten.

Aizkolari bakoitzak bere erakasle edo botilleroa izan zuen: Astibia Cristobal Lazkano, Latasak Joshe Ciganda, Arriyak Yurrebaso, Berekoetxeak, Vishente Azpiroz, eta Usategietak Lorenzo Mitxelena.

Saoiak laster eta aixe erakutsi zuen Erramon Latasa denbora guzietako Euskalerriko aizkolaririk onena izan dela. Etsai bat izan bazuen ere, asieran bakarrik ikusi genuen eta hau Patxi Astibia izan zen, baño bereala Latasa aurreraldi galanta artu zion Astibiarri eta proba guzian gizon bat bakarria ikusi genuen denok: ERRAMON LATASA, Sunbildarra eta berrogei t' amar urtetik urbilean ibiltzen ba-



da ere bera da onbor-ebaki modu hontan nagusi...

Modu hontan gelditu ziran azkenean:

Txapeldun: ERRAMON LATASA, Sunbillekoa - 44 minutu eta 16 segundutan.

Bigarren: Patxi Astibia, Leitza - 47 minutu eta 36 segundutan. Iruugarren: Arriya, Azpeitiko - 52 minutu eta 10 segundutan.

Laugarren: Berekoetxea, Gorritiako - 53 minutu eta 54 segundutan, eta

Azken: Usategieta, Oiarzungoa - 56 minutu eta 16 segundutan.



ZURI, IRAKURLE...

Bai, zuri, irakurle. Zuri mintzo naiz.

URTE BERRI bat asi dugu. Ta, nere lan edo idaztitzo hauek irakurtzen dituzuen guzietan, ZORION dizuet biotzez. Urteberriaren batera, ni ere BERRIA naiz izkribulan hauetan. Euskeraz idazten alegin nai dut. Euskaldunak, oitu behar dugu alik ta geien euskeraz idaztera, izkribitzera.

Askotan, entzuten dugu ezjakintza edo «analfabetismo» zikin ori galdu behar dela. Yakintza, kultura, sartu behar zaiola erriari. Yakintzak askatuko, libratuko dituela erriak. Yakintzak eziko dituela... Egia, jatorra gañera.

Askotxo saiatzen da yakintzaren alde, bañan, oraindik ezda aski. Asko falta da. Slogan batek adieraztera ematen digu onako hau: «Yakintzak askatuko zaitu» Ze egia! Euskal erria ere yakintzak askatuko du. Ta ez indarrak...

Nik ez dakit zenbat denbora egingo ote duen, asko beñepein bai; bazen olerkari, poeta, ospetsu bat, txinatarrak bera, KUANTSU izenekoa, ta bere olerki batzuetatik ateratzen ditut gaur egunear ere egoki aski datozkigun itz hauek:

«Zure asmoak urte baterako baldin badira, erein zazu azia

Urte batzuetarako badira, landatu zuaizta (arbola).

Eun urtetarako badira, berriz, ezi erria...»

«Bein ereiten duzun azitik, bein bakarrik yasoko duzu uzta (fruitua).

Landatzen duzun zuaiztatik, amar aldiz yasoko duzu.

Erria eziz, berriz, eun aldiz izango duzu uzta.

KUAN-TSU berak, ta itz laburragoaz, begira nola gauza bera adierazten duen: «Gizon bati, arrai txiki bat ematen badiozu bein bakarrik jango du. Arrantzan erakusten badiozu, berriz, bere bizitza osoan zer yanik izango du...»

Esaera zaharrak, bañan trebeak. Egi garbi ta sakonak ibiltzen dituzten gizon buruargiko hoietako baten esanak dira. Oker aundirik gabe, lengo esaera zaharrak, gaurko egiten ahal ditugu».

«YAKINTZAK ASKATUKO ZAITU».

Euskal Erri maite! Zu ere yakintzak askatuko zaitu. Ta ez indarrak...

LANDABERRIKO ANUNTIXIK



Iruñeko Euskaltzaindiaren Billera

Yoan den Abenduko laugarrenean, Xabierreko Franzisko Sainduaren ondoko egunear, Euskaltzaindiak (Euskal akademiak) Iruñean Billera berezi bat ospatu zuen.

Inportantzi aundiko Batzarra izan zen, eta honekin Euskaltzaindiak bukaera eman zion urte hontan ospatu izan diren billera bereziei bere urte eztaingatik.

Goizeko amaika t'erditan eta Nafarroko Diputazio-nearen saloi eder batean, hau da «Consejo foralaren saloian», Euskaltzaindia bildu zen, maiburuko Manuel Lekuona Apez Jauna izaten zalarik. Galizia, Catalonia, Valencia, eta Balears-en izenean etorritako jaunak ere egon ziran.

Azkenean Nafarroko Diputazio-nearen izenean Urmeneta Jaunak agurra eman zion Euskaltzaindiari, baita

ere Arrue Jaunak Madrillgo «Educación y Ciencia» ministroaren partetik agur bat ekarri zuen.

Egun hortan berean Euskaltzaindiak ohorezko aipamen berezi bana eman zien Apraiz jaunari, Manterola eta Ibarretxe apez jaunei berek egindako euskeraren aldeko lan eta alegiengatik. Iru euskal makilla eman zituen ere Euskaltzaindiak 50 urte hauetan euskaltzain izandakoei: Aita Damazo Intzakoa, Julian Lekuona Apez Jauna, eta Ixaac Lopez Mendizabal Jauna.

Eguerditan Nafar Diputazio-neak Iruñeko «Iru Errege» Hotelean Euskaltzain guzietan eta Catalonia, Balears, Galizia eta Valencia etorri ziren jaunei ohorezko bazkaria eman zien.

(Argitaratzen dugu segidan egun hortantxe Euskal Akademiak artu zituen erabakirik interesgarrienak gure irakurleentzako).

Euskaltzaindiaren agiria

Iruñan, Nafarroako Diputazio Foralean, 1968-ko abenduaren 4-an, goizeko hamaiketan.

Euskaltzainburuak, Ramón Menéndez Pidal euskaltzain ohorezkoaren hil-berria eman du. Eta familikoeri doluminak ematea erabaki da.

Eskuarterko har-emanen berri eman du idazkariak: Real Academia Española-ren telegrama bat Rafael Lapeña sekretarioaren izenez, zorianak emanez eta Esteban Calle Iturrino laguntzailea izendatu dutela beren ordezkari Iruñera etorri dedin, baina Calle Iturrino jaunak, Oleagaren bidez, gaixorik dagoelako ezin etorria adierazi du; Real Academia Gallega-ren buru den Sebastián Martín Risco-ren gutun bat, akademia hartakoa den Ramon Piñeiro Lopez gaurko egunear gure artean izango dugula esanez; Obra Cultural Balear-eko buru don Miquel Marques Coll-en karta bat, beren ordezkari Antonio Verge i Albertos etorriko dela esanez. Idazkariak aditzera eman du, jaun honekin batean gure artean ditugun beste jaun batzuek ere:: Institut d'Estudis Catalanas-eko sekretaritzaren daraman Ramón Aramon i Serra, Omnium Cultural-eko zuzendari dan Frederic Roda eta Valencia-ko Lo Rat Penateko buru den Joan Segura de Lago. Era berean, Euskal Herriko beste zenbait elkarten zuzendari edo ordezkariak, hauen artean: Institucion «Principe de Viana»-ko euskeraren alderako sailaren buru don Jorge Cortes Izal; Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-eko Alvaro del Valle Lersundi; Iruña'ko Euskalerrriaren Adiskideak-aren Jose Estornes Lasa; eta bestela ere euskaltzaindiko ditugunetarik «Julio Urkixo» Mintegikoak eta Euskerazaleak.

Aresti-ren karta bat, batasunari buruz Arantzazun hartu ziren erabakiak ahalik zuzenen eramateko eskatuaz, eta laister argitaratu duen

Meabe-ren itzulpena bere erako ortografiaren argitaratzen duelako aditzera emanez, inprimatua zegoelako dala, baina aurreantzean Arantzazuko erabagietan jarraituko duela aginduaz.

Euskaltzainburuak, apezpikoeri egin behar zaizkien Liturgia batuen eskaria aintzat harturik, orain arte egin danaren berri eman du zehatz-mehatz. Izan diran jokarak garbi azalduaz. Eta, apezpikoeri egin behar zaion gutunaren borradore irakurri du.

Ondorean, Urmeneta jaunak egin ditu zenbait hitz, ongi-etorria emanez eta urte-erdiaren zorianak eskeintzaz.

Idazkariak, Satrustegi, Lizundia eta bera, goizeko hamar t'erdietan artzapezpikuak hartu dituela eta naharo mintzatu direla euskeraren alde egin dezakeanari buruz eta euskera batuan Liturgia gertatu beharri buruz. Artzapezpikuak euskeraren borondate ona erakutsi duela esan da, eta Eguerriak inguruan gainerako apezpikuekin biltzen denean, gogoan izango dituela gure esanak, baitere gure laguntzaren eskeintza.

Larzabal-ek dio, orain dela garaia beren katiximik frantsesetik oinharriak harturik edo gure batean euskal giroari dagokion bat egin, denon artean.

Euskaltzainburuak, aditzera eman du, datorren igandean hasiko dela Errederian Xenpelar urtea (Juan Franzisko Petirena «Xenpelar» bertsolaria 1869-an hil bai zan) eta Euskaltzaindikoak komitatuak gaudela bertara joan nahi badugu.

Biltzarra ohorezko izendapenetara heldu da, eta euskaltzainburuak eman dizkie agiriak, diplomaz, Euskaltzaindiak bere sorreratik laguntzaile izan dituan Juan Kurutz Ibarretxe, Odon Apraiz eta Gabriel Manterola jauneri. Ondotik, haiek bezala laguntzaile izendaturik gaur oho-

rezko dugun Ixaka López-Mendizabal-i euskaldun makilla bat oroitzapenez, eta era berean euskaltzaink zaharrena Olan (1920-an izendatua) Migel Olasagarre (Aita Damaso Intza-koa) jaunari eta bukatzeko, sorkeratik laguntzaile eta gaur euskaltzainburu dugun Manuel Lekuona jaunari. Orduan egin ditu hitz batzuek, urte-erdiaren aintzat harturik, Euskaltzaindiko diran zenbait izenen goresmenaz, beren lanen eskergarrit, eta bereziki, ohorezko izendapena eta aipamena hartu duten hoi-egandik aparte Anizeto Zugasti denbora bateko «Argia»-ren zuzendari bezala eta Fermin Irigaray «Larreko» nafar idazlea.

Satrustegik, «Larreko» nafar idazlea aipatu delarik, jakinerazten du datorren urtarriaren (ilbeltzaren) 25-ean dala sortze urte-burua Pablo Fermin Irigaray «Larreko» Euskaltzaindikoak zanarena, eta igaz Enrique Zubiri «Manezaundi»-ri bezala mezezi duen ospea egingo zaiola.

Era berean, gogorazten du, nafarroarentzat aulki bat hutsik utzi zuelako Seminario Rojas-ek, eta aulki horatarako ongi legoekala Agustin Zarranz, bere ordena erlijiozkoan Aita Polikarpo Iraizoz-kotzat ezagutzen dugu eta euskal literaturan «Urtsuya» eta «Irisarri»-rekin, hainbeste euskerazko lanen egilea eta nafar euskera errotik ezaguturik bertako aditzen azterketa zehatzak eginak dituen. Aho batez ontzat hartu da Aita Iraizoz, lehendik laguntzaile zena, euskaltzain egitea.

Rikardo Arregi mintzo da, zaharri gazteen izenean, eskerrak emanez bideak erakutsi dizkigutelako, Xenpelar-en hitzekin bukatuaz: «Jaioko dira berriak, gu gera Euskalerrriak».

Eta azkenik Ixaka López-Mendizabal mintzo da, herbesteetako euskaltzale eta euskalariekin oroituaz eta beren alderako agurra eskatuaz.

A R R U A Z U

Bereak eta asto beltzarenak entzun ditu oraikoa Arbazu'ko herriak. Hori esan lezakete, bizi ba lira, garai bateko gure zaharrak. Nik ahal banu dena gezurra dela esan nezake. Baño, ez dezagun galdu burua...

Duela zenbait urte izarretan jartzen zuten denek gure herria. Izarretan ez baño, zeruan esango nuke nik. Etzen halakorik munduan. Nere iritzian arrisku aundiko gauza da ain gora jasotzea herriak. Gainera irriskata hasten ba dira... Zenbat eta goragotik erori, aundiago da muturrekoa. Sorgin aize nahasiak mugitu dira azken aldi ontan gure inguruan. Zer egin? Zer esan?

Nik ez dut gaizki artu. Ba zirudien besteak ez bezelakoak izan behar ginuela gu. Itzal gabeko iruzkiak. Ez dakit nungo erreñu gabeko aingeru kasta. Nik berriz, iñungo jainko-txikitik sineste gutxi. Halako batez konturatzen asi gera lurraren gainean ginabiltzala, ezur eta mami, beste guziak bezela. Ez ginen hobeak, onak ginela esaten zigutelakotz. Ez eta orai gaistoago, ago gaiztotan gabiltzatelako.

Itzala. Eta zer da itzala? Plazako arbolak udan bezala beharrezkoak dira herrian itzalak. Hobeki agertzen da argiaren ederra. 'Arnabarretako' arri ta malkorrak ikusita zerbait da gero arelurra. Hori bai; baso bazta-

rrak ez du urak artzeko bildurrik. Bakoitzari berea.

Neska gazte batzuk ez dutela euskeraz ikasi! Berek galduko dute. Merke aski jakingo zuten beste batzuk nekez ikasi nahi dutena; eta ez dakite. Baño zertako ez esan ba direla mintzo duten neska gazteak ere? Eta ez dira lotsatzen euskaldunak direla esaten...

«Ni falta que me hace...» (hori bai, askotxo esatea da. Baño, konturatuko dira).

Haurretan ere denetatik ba da. Gurasoen falta. Alare, duela amar urte etzen ainbeste haur euskaldun Arbazu'ko herrian. Ez bai da gaurko gaitza! Gerta laike auekin ere lengo batez batxiller'go eskola batean gertatua. Ingles ikasten asiak eta euskaldun bati bere lagunak barre egin. Maisuak orduan, erderaz:

«Nik ez dut barrig egin; eta egi-tekotz zuen gain egin nezake... Eskileretan bigarren koska igotzen asizate zuek, ETA ONEK IRUGARRENA...» (maisua erdalduna zen eta barre egin zutenak euskaldunen seme alabak).

Neretako errexago izango zen Arbazu euskera kontuan, nola oitura garbitan lengoa zela esatea. Baño iruzkia den lekuan, izango dira itzalak. Eta Arbazu'n bestetan bezala.

ARBAZUARRA